

Gipuzkoa

Azkoitia

Erdigunea Casco urbano

UDALAZOKA MERCADO MUNICIPAL



Azkoitiko Udalak alondegia, ikastetxe publiko eta azoka izateko eraikin bat altxatzea onartu zuen 1903an, Manuel Etxabe arkitektoaren proiektua oinarri hartuta. Handik gutxira, 1926an, Tomas Bilbaok handitu egin zuen. Horrenbestez, mende hasierako arkitektura-estiloak ageri zaizkigu multzo honetan; alegia, eklektizismoa eta, zehazkiago esanda, erregionalismoa. Multzoak presentzia handia du herrian. Hainbat solairu ditu eraikinak, eta alboan bi nabe txiki ageri dira. Era berean, Urola ibaiaren gainean altxatutako hirugarren nabe bat ere badauka, estalitako zubi itxura duena. Eraikin horietako bakoitzak bere estiloa du: 1905ean altxatutakoa eklektikoa da; 1926koak, ostera, herri-arte berraren kutsua du. Beheko solairuan merkatua dago, eta goikoetan, berriz, ikastetxea. Gainean terraza daukate; azokak, ordea, bi isurialdeko teilatua du bi hegaletan. Atzeko aldean, berriz, estalki-sistema konplexu bat. Fatxada nagusia harlanduz eginda dago beheko solairuan eta atal nagusietan; eraikinaren atal gehienak, ordea, harlangaitz igeltsutatzuz eginak dira. Beheko solairuan galeria ireki bat dago, puntu erdiko bost arkurekin (hain zuzen ere, azokaren hegalak dira). Ikastetxearen gainerako bi solairuek zutabetan banatutako hiru ardatz dituzte. Lehenengo solairuan bao bikiak dituzte, baina bigarrenean bakarra baino ez dute. Herriko alde zaharrean kokaturik, babestuta dago 2005az geroztik.

En 1903 el ayuntamiento de Azkoitia aprueba la construcción de un edificio destinado a alhóndiga, escuelas públicas y mercado, según el proyecto del arquitecto Manuel Etxabe. Poco después, en 1926, Tomás Bilbao realizó una ampliación. El resultado fue un conjunto de edificios en los que se han combinado estilos arquitectónicos de principios de siglo —eclecticismo y, más en concreto, regionalismo— con una gran presencia en la villa. Es en esencia un edificio de pisos en cuyos laterales se describen dos pequeñas naves, más una tercera, correspondiente a la ampliación sobre el río Urola, dispuesta a modo de puente cubierto. Cada una de estas etapas presenta su estilo: el edificio de 1905 es de carácter ecléctico, mientras el de 1926 presenta detalles de arte neopopular. La planta baja se destina a mercado y las plantas superiores a escuelas. Éstas se rematan en terraza, y el mercado en un tejado a dos aguas en dos de sus alas, con un complejo sistema de cubiertas en la parte posterior. La fachada principal aparece aparejada en sillería en su planta baja y las partes nobles, mientras que la mayor parte de la construcción dispone de mampostería enlucida. La planta baja presenta galería abierta con cinco arcos de medio punto que corresponden a los extremos del mercado. Las otras dos alturas de las escuelas presentan tres ejes separados por pilastras, con vanos gemelos en la primera altura, que pasan a ser únicos en la segunda. Cuenta con protección dentro del casco histórico de la villa desde 2005.